

Martxoaren 26an egingo da mundu osoan, **20:30etatik 21:30etara**

Kutxabankek berriro bat egingo du ‘Planetaren Orduarekin’

- **Bere egoitza korporatibo guztietako argiak itzaliko ditu Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Kordoban**

2022komartxoaren 25ean. Kutxabank Talde osoak bere egoitza korporatiboetako argiak itzaliko ditu beste behin ere ‘Planetaren Orduarekin’ bat eginez. Ekimena WWF (World WildLife Foundation) erakundeak deitu du, eta Bilboko Kale Nagusiko egoitzan, Donostiako Garibai kalekoan, Gasteizko Independentziakoan eta Kordobako Gran Capitán/ Ronda Tejareseko egoitzan ikusi ahal izango da.

Erakundeak kanpainaren berri eman die langileei eta bezeroei, etxetik kanpainarekin bat egin dezaten gonbidatzeko.

Ingurugiroan eta gizartean eragin positiboa duten ekimenekin bat egiten duen erakundea da Kutxabank, karbono isuriak murrizten dituen ekonomiaren aldekoa da, finantza-jasangarriak sustatzeko ahalegina egiten duen bitartean.

2020. urtean lehen finantza erakundea izan zen erabat energia berdea erabiltzen. Honela, bere 900 bulego inguruk eta Taldeko lan-egoitza guztiek jatorri jasangarriko argindarra baino ez dute erabiltzen, Iberdrolako planta fotovoltaiko batek sortzen duena. Honela, atmosferara 6.000 tona karbono dioxido isurtzea ekidin ohi du urtero.

Horrez gain, isurketetan erabat erakunde neutroa da, ia 12.000 tonako ‘karbono aztarna negatiboa’ baitu. Honek zera esan nahi du: Bankuak kudeatzen dituen baso sailak -guztira 962 hektarea- gai dira bere jarduera zuzenak sortzen duen karbono dioxido guztia aise xurgatzeko.